

BESTE EKONOMIA BAT, BESTE BIZIERA BAT

Beste foro eta giza talde batzuekin partekatzen ditugun Jardunaldi hauetako azterketa eta gogoeten ildotik, salatu egiten ditugu:

* Munduko injustiziaren eragile den sistemaren errotikako ustelkeria, zeinak gizadiaren zati

handi bat giza-azpiko baldintzetan bizirik iraun beharrera daraman eta prekariedade,

pobrezia eta mendekotasun iraunkora sorrarazten duen.

* Errespetuan, zuzentasunean eta ekologia egonkorrean finkatutako oinarritzko baloreen

eta eskubide indibidual eta kolektiboen ezeztatze progresiboa, guzti hauek gorengo

ondasuntzat jarritako diruaren menpe jarriz gauzatzen dena.

* Kapitalaren aginduen menpera jarritako Estatuaren - espainiarra tarteko - engainua, errotik

injustua den sistema iraunarazten temati saiatzen baitira.

Horrenbestez gizateriarentzat ezaugarri eta ondoren negatiboak dakartzan zikloaren amaieran garela egiaztatzen dugu, eta horren alternatiba bakarra solidaritate, justizia eta eskubide indibidual eta kolektiboetan oinarritutako sistemaren aldaketa progresiboa dela.

Egiaztatu dugu utopia hau Euskal Herrian gauzatzen ari dela herri mobilizazio modu ezberdinetan eta halaber, Jardunaldi hauetan aurkeztutako batzuetan bezala, zenbait ekoizpen iraunkor eta ekologikoen egitasmo eta esperientziatan, lan partekatuan, kontsumo arduratsuan, solidaritate eta aukera soberanistaren ikusmoldean oinarritutako giza harremanetan.

Beste ekonomia baten esperantza eta beste biziera bat akuilatzen duten esperientzia positibo hauen ikuspegitik, zera exijitzen dugu:

* Gizarte zibilari eta gizarte klase esplotatuei erreakzionatu eta antolatu daitezela, bizitzako

arloan guztietan solidaritatea eta demokrazia bideratuko duten bizitzeko erak ahalbidetu

ditzaketen herri botere alternatiboa eraikitzeko.

* Klase politikari politikaren erregenerazio etikoa, non neoliberalismo ekonomikoarekiko

menpekotasuna gaindituz, demokrazia partehartzailearen esparruan pertsona eta klase

behartsuen zerbitzua jardungo duen sistema ekonomiko eta finantzarioa eta merkatu eta

enpresak sustatu ahal liratekeen.

* Instituzioei, talde eta erakundeei, Eliza katolikoari bereziki, indarrean dagoen sistemak

eragindako injustiziak eta ustelkeriak salatu, eta eraldatze sozial askatzailearen ahalegi-

netan lagunduko duten ekimen eta burutzapenak sustatu eta bultzatu ditzatela.

Beraz, pertsona eta talde gisa proposatzen dugu:

- * Klase kontzientzia areagotu dezagula eta mundu justuago, zuzenago eta solidarioagoaren eraikuntzari, modu antolatuan, aurre egin diezaiogula.
- * Gure ingurunean demokrazia zuzen eta autogestionatuaren prozesuak sustatu eta esperi-mentatu ditzagula.
- * Beste fiskalitate mota bat errebindika dezagun, iruzur ororen eta babesleku fiskalen aurka aritzeaz gain, banka publikoa sustatu eta banka etikoarekin elkarlanean ariko dena, gizarte zerbitzuen lehentasuna ziurtatu, eta egiazko guztien ona bideratzeko aurrekontuen erabaki-mentean gizartearen parte hartzea onartuko duena.
- * Babes ditzagun gizarte mugimenduak -gazteenak bereziki- beste gizarte eredu sozial bateranzko ahaleginetako ekimen eta esperientzietan.
- * Oraindik orain, gehienbat, emakumeek burutzen dituzten etxeko lanetan guztiok, gizon eta emakume, erantzunkide izan gaitezen.
- * Oreka ekologikoaren kontrakoak diren proiektu erraldoien gelditzea exijitu, eta garapen solidarioa eta biziaren erabateko zaintzea defenda dezagun.
- * Kontsumo arduratsuz eta bizitzeko era berriez jardutera obligatzen gara.
- * Oinarrizko kristau gisa, eska dezagun bai Elizak eta bai beste talde erlijiosoek solidarita-tearen kulturaren eta ordena ekonomiko justuaren aldeko bai lekuko eta bai munduko etika bultza dezatela.

Beste mundu bat posible delakoaren itxaropenez eta konbentzimentuz bururatzen ditugu Jardunaldi hauek, gure herriarentzat eta munduarentzat nahi ditugun bakea eta bizikidetza sortzen dituen justizian oinarritua hain zuzen.

Jardunaldi hauetan landutako ildoetan ari diren beste talde batzuekin batera lanean jarraitzeko gure konpromisoa berresten dugu, ala Euskal Herrian ala munduan eredu ekonomiko justu eta subirano berrietarantz aitzinatzeko non pertsona eta herrien eskubide guztiak gauzatu ahalko diren.

Herria 2000 Eliza

Gasteiz, 2013ko maiatzaren 7 eta 8